hiruka
188. zenbakia
Argazkilaritza • BEREZIA

Argazkilaritza *euskaraz*

FOTORICARDO

Inprimatu dekoratu eta oparitu zure argazkiekin!

Dendan zein internetetik edozein gailu erabilita



www.fotoricardo.es

PHOTO CENTER:
Euskal Herria 2, Algorta/ 944 608 004

FOTO RICARDO:
Calle Mayor, Areeta/ 944 634 813

FOTO RICARDO:
Algortako etorbidea 110, Algorta/ 944 603 248

FOTO & PAPEL:
Juan Bautista Zabala, Algorta/ 944 912 244

FOTOXABIER
SOPELA

Doctor Landa z/g
946 760 309
www.fotoxabier.com

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Maria Gorostiola
Erredakzioa: Hodei Torres
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino
Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 5.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak

Getxo bizi ezazu
Leioa Euskara Zerbitzua
Berangoko Udala
Barrikako Udala
Gorlizko Udala
Urdulizko Udala
Lemoizko Udala

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Aurkibidea

Sarrera 04-05
Abiadura 06-07
Diafragma 08-09
ISO-a 10-11
Objektiboak 12-13
Kolorea 14-15
Konposizioa 16-17
Kameraren moduak 18-19
Kameraren trikimailuak 20-21
Mobilagaz argazkilaritza 22-23
Erretratua 24-25
Paisaiak 26-27
Gaueko argazkiak 28-29
Kirol edo abiadura handiko argazkiak 30-31
Edizioa eta errebelatua 32-33
Argazki batzuen analisia 34-37

Argiagaz marrazten hasteko prest?

Txoko berri honegaz argazkilaritzaren munduan murgiltzen lagunduko zaitugu pausoz pauso. Helburua ez da izango argazki onak egitea, baizik eta zuk gura dituzun irudiak lortzea.

Argazkilaritza

Argazkilaritza kontzeptua argia erabilita marraztea esan gura du, grekotik eratorritako berbek dioten bezala:

***photos* = argia + *graphis* = marrazkia**

Argazki bat egin ahal izateko, beraz, argia euskarri fotosentikor batean islatu beharko dugu. Orokorrean, gaur egun, euskarria digitala izango da: kameraren sentsorea; hala ere, karretea erabiliz gero, pelikula izango da euskarria. Argazkilaritzaren historia ezagutu gura baduzue kuxkuxea ezazue Interneten zein liburuetan *camera obscura*. Horri esker, hasieratik gaur egunera arte argazkilaritzak izan duen garapenaz gozatuko duzue.

Kamera

Askotariko kamerak topa ditzakegu: trinkoak, reflex, ispilurik gabekoak... Eta, denen funtzionamendu zehatza azaltzea ezinezkoa denez, edozein kamera ulertzeko kontzeptuetatik hasiko gara.

Objektiboa eta sentsorea

Objektiboa eta sentsore fotosentikorra duen kamerarik oinarrizkoena uneoro daramagu soinean: telefono mugikorrak daramana, hain zuzen ere.

Objektiboa guk islatu gura dugun argi hori sentsorera bideratzeaz arduratuko da, eta, hori, kristalen bitartez egiten du. Aurrerago azalduko ditugu objektiboek dituzten xehetasunak, baina, horien mekanikaren eta kristalen arabera, argi gehiago edo gutxiago igaroko da, gure subjektua gerturatu edo urrundu, eta kolore ezberdinak islatuko dituzte. Mekanikak eta kristalak esango digu zein foku-distantzia izango duen gure objektiboak: 50mm, adibidez; eta zein den diafragmarik zabalena; f: 3.5, berbarako. Ikusiko duzuenez, gure kameraren parte oso garrantzitsua da objektiboa.

Sentsore digitala izango da gure euskarria (betiere analogikoan aritzen ez bazarete), eta argia harrapatzeko duen ahalmena sentsibilitatea da, ISO gisa ezagutzen duguna. Askotariko tamaina eta motatakoak daude, eta, horren arabera, koloreen kudeaketa eta argi gutxiagogaz hobeto lan egiteko aukera emango digute.

Konposizioa

Edozein argazki zalantzan jartzeko lehenengo arrazoia enkoadraketa da. Gure bisoretik aukeratzen dugunean zer sartu eta zer ez, subjektiboak izaten ari gara, eta gure aurrean gertatzen ari denaren zati bat erakustea erabakitzen ari gara. Ez da berdina manifestazio batean lau katu dauden txokoari argazki bat egitea, edo ondoan dauden milaka pertsonei. Ikasi behar dugun lehenengo puntua da subjektibotasunak gure argazkiak markatzen dituela. Pertsona adina ikuspegi topatuko ditugu, beraz, argazkietan, eta hori da duen mundu horren aberastasuna. Honetan ere sakonduko dugu aurrerago: ikuspuntuak, interes-puntuak eta abarrak.

Koloreak

Berotasuna edo hoztasuna kolore ezberdinen bitartez sentiarazi ahal izango dugu, eta, konposizioan bezala, oso garrantzitsua izango da argazkietan agertzen diren koloreen aukeraketa edo kokapena. Eguzkia dagoenean, edo egun hodeitsuetan ere, ikusiko duzue zein aldakorra bihurtzen den argia, leku berdinari begiratuta ere.

Obturadorea eta abiadura

Gure argazkietan denbora eta mugimendua nahieran islatzeko obturadorea kontrolpean eduki beharko dugu; hona hemen horren ezaugarri nagusiak.

Obturadorea

Kameraren barruan kokatuta dago, haren «gorputzean», sentsorea eta objektiboaren artean. Normalean, gortina batzuk dira, gora eta behera mugitzen direnak; gillotina moduko bat, eta ireki eta ixten diren tarte horretan, argia pasatzen uzten dute.



Argiaren sarrera

Argazkiak sentsorean islatzen diren irudiak direla esan dugu, eta, hori gertatzeko, argia sentsorean jo behar du. Hauxe da obturadorearen lana: argiak zenbat denboran sartzen den sentsorera.

Uraga egiten da konparaketa askotan: imajinatu kubo bat dela gure sentsorea, eta iturria zenbat eta denbora gehiago zabalik egon, orduan eta ur gehiago helduko dela kubora; aldiz, oso denbora laburrean zabaltzen badugu, ur gutxi helduko dela. Hori da obturadorearen lana: denbora kontrolatzea; zenbat denboran argia pasako den kontrolatzea, hain zuzen ere.

Mugimendua

Denbora tarte horretan ez da bakarrik argi gehiago edo gutxiago sartzen, sentsoreak kamera aurrean gertatzen dena jasotzen dago. Adibidez, 2 segundoko abiadura erabiltzen badugu, mugimendu hori harrapatuko du. Abiadura oso azkarra bada, 1/4000 esaterako, istant hori izoztuko du, momentu txiki hori bakarrik hartuko du. Ea adibide batzuk jarrita hobeto ulertzen dugun:

1- Ur-jauzi edo erreka baten uraren mugimendua islatu gura dugunean, obturadorearen abiadura baxua izan beharko da, gutxienez 2 segundo egon beharko da zabalik, mugimenduan dagoen ura zeta-efektuagaz agertzeko.

2- Oso azkar mugitzen den txoria, ur-tanta bat, kirolari bat... Halakoak izoztuta edo mugimendu zehatz batean harrapatzeko, abiadura azkarra erabili beharko dugu, 1/500-tik gora askotan. Baina, halakoak egiten ditugunean, argi asko eduki behar dugu, hain denbora laburrean oso argi gutxi sartuko delako sentsorera.





Pausoak

Zelan neurtzen da obturadorearen abiadura? Bada, segundo bat oinarri hartuta, eta horren zatiketak eginda. Hau da: 1 zenbakia ikusten dugunean, 1 segundo esan gura du, segundo batean zehar obturadorea zabalik dagoela. Orduan, segundoko 1 /500 abiadura, azkarra da, eta 5 s baxua. Hori kontutan hartuta, pauso bat igo edo jaitsi behar dugula esaten dugunean, 1/15etik 1/8ra pasatu behar garela esan gura du, edo 1/500etik 1/250era.

Horiek dira pausoak: obturadorearen abiadura ezberdinen artean dauden tarteak. Batzuetan, kameraren arabera, pauso osoak izan beharrean, pauso erdiak edo herenak topa ditzakegu; hau da, pauso oso horiek, erditik edo hirutan zatituta.

Adibidez: 1/500-1/400-1/320-1/250-1/200-1/160-1/125

Lausoa irten da?

Abiaduraren arabera, tripode bat edo egonkorra den oinarri bat beharko dugu. Kamera mugitzen badugu 3 segundoko argazkia egiterakoan, dena lausotuta agertuko da. Horretarako, tripode batean jarri beharko dugu kamera, eta, estatiko dagoenez, kanpoko mugimendua islatuko du bakarrik.

Orokorrean, esaten da:

- 1/125 abiadura estandarra da.
- 1/30 segundo beherakoak, abiadura baxuak dira (tripodea erabili).
- 1/500 gorakoak oso azkarrak dira.

Abiadura eta obturadorea ondo ezagutzen ditugunean baliabide artistiko gehiago edukiko ditugu gure argazkiak planteatu eta egiteko orduan. Bada, has zaitezte probatzen.

Diafragma eta eremu-sakonera

Hondoa eta lehen terminoa banatzeko aukera ematen digu diafragmak, edo paisai batean den-dena garbi ikusi ahal izatea. Horregatik, ondo ulertu behar dugun baliabidea dugu irekidura.

Diafragma

Objektiboan kokatuta dago, eta mota ezberdinetakoak daude, irekidura anitzekoak eta haien pala kopuruaren arabera, desenfoke ezberdina eskaintzen dutenak. Irekidura handiko objektiboek argi gehiago pasatzen uzten dute, baina garestiagoak dira baita ere.



Gure irisa

Obturadoreari buruz hitz egin genuen aurrekoan; denbora kontrolatzen duela jakinda, orain ikusiko dugu diafragmak sentsoreak jasoko duen argi kantitatea kontrolatzen duela. Zenbat eta irekiago izan, orduan eta argi gehiago pasako da, eta zenbat eta irekiera txikiagoa izan, orduan eta argi gutxiago. Gure begietan bezala, argi gutxi dagoenean, irisa zabaltzen da, eta argi gehiago dagoenean itxi.

Hiru alderdiak

Diafragmagaz oinarrizko hiru alderdi kontrolatuko ditugu:

1- Sentsorera heltzen den argi kantitatea.

2- Eremu-sakontasuna.

3- Irudien gardentasuna.

Irekiduraren pausoak

Abiaduragaz bezala, pausoetan neurtzen da irekidura. Pauso bakoitzak argi gehiago edo gutxiago sartzen utziko du, eta kamera bakoitzean ezberdin markatuko dira pauso horiek; izan daitezke osoak, erdiak edo herenak.

«f» pauso gisa izendatzen dira, beheko irudian ikusi ahal duzuenez. Hauexek dira pauso osoak:

f/1.4 - f/2 - f/2.8 - f/4 - f/5.6 - f/8 - f/11 - f/16

Eta hauek herenak:

1.4 – 1.6 – 1.8 – **2** – 2.2 – 2.5 – **2.8** – 3.2 – 3.5 – **4** – 4.5 – 5 – **5.6** – 6.3 – 7.1 – **8** – 9 – 10 – **11** – 13 – 14 – **16**

Diafragmak eremu-sakoneran zelan eragiten du?



Ez nahastu!

Hau da argazkilaritzan nahaste gehien sortzen duen elementua, irekidura handiak (f 2.8, adibidez) ez daukalako zenbaki handirik, txikiak baizik.
Ezkerreko irudian ikusten duzuenez, f 1.4 irekidurak argi asko pasatzen utziko du (iris oso zabal bat bezala) eta f 16 aldiz, oso argi gutxi. Oso garrantzitsua da erlazio hori ondo barneratzea: irekidura zenbaki txikiek (f 1.4, f 2.8, f 3.5) argi gehiago pasatzen utziko dute, eta zenbaki altuek (f 11, f 16, f22) oso argi gutxi. Orokorrean, esaten da:

- f 2.8 diafragma irekia da.
- f 5.6 diafragma ertaina.
- f 11 diafragma itxia.

Argiarengan eragina

Pausoen erregela kontutan hartuta, jakin behar dugu pauso bat ixten dugunean (f 2.8-tik f 4-era) % 50 argi gutxiago sartuko dela sentsorera, hau da, argia erdira murriztuko dugula. Beraz:

f zenbaki txikiagoa - argi gehiago
f zenbaki handiagoa - argi gutxiago

Irekidura eta eremu-sakontasuna

Aurrerago sakonduko dugu eremu-sakontasunaren kontuan, baina, oraingoan, goiko taulaz lagunduta, ikusiko dugu diafragmak zelan eragiten duen.
Eremu-sakonera fokuratze-puntuaren aurretik eta atzetik garbi agertzen den argazkiaren kantitatea da.
Irudi batzuek eremu-sakonera txikia dute (beheko argazkia adibidez), eta hondoa erabat desenfokatuta dago. Beste irudi batzuek, eremu-sakonera handia dute, non, lehen terminoa eta hondoa erabat garbiak diren (ezkerreko paisaian bezala).

Eremu-sakonera txikia lortzeko diafragma irekiak erabiliko ditugu (f 1... f 3.5) eta aldrebes, eremu-sakonera handia lortzeko (paisaien irudietan adibidez) diafragma itxiak (f 8...).

Beraz, diafragma irekiak hondoa desenfokatzeko aukera asko emango dizkizu, eta beste baliabide artistiko bat bezala erabiliko dugu.

Esposizioa eta sentikortasuna

Esposizioa kontrolatzeko hirugarren aldarri bat agertzen da: sentsorearen sentikortasuna. Argi egoki bat lortzeko lagunduko digu, baina, beti ere, bere mugak ezagutu behar ditugu zarata digitala ager ez dadin.

Esposizioa

Argazkietan argia kontrolatzeko, orain arte, abiadura eta diafragma erabili ditugu. Bi alderdi horiek kontrolatuta, argiaren oinarria kontrolpean dugu, baina ISOagaz hirugarren aukera bat zabaltzen zaigu: argi gutxi dagoenean, abiadura eta diafragmagaz nahiko ez dugunean, ISOaren sentikortasunagaz jolastuko gara.

Argia neurtzen fotometroagaz

Argiaren kontrola edukitzeko, fotometroa izango da gure bidelaguna. Argazki kameran beti ikusten ditugun zenbaki horiek, +1, 0, -1... dira hori.

Grafiko hori da gure fotometroa, eta esposizioaren neurketa egiten du. Esposizio «zuzen» bat edukitzeko, 0 balioan egon behar da beti.



Kamerak, fotometroaren bitartez, gure enkoadraketaren argiaren neurketa bat egiten du, eta, horren arabera, esposizio zuzena markatuko digu: 0 balioa.

Fotometroak neurtzeko modu ezberdinak ditu: normalean erabiltzen dena ponderatua da, baina modu berezi horietan ez gara momentuz sartuko, aurrerago aztertuko baititugu.

Argiaren taula eraman

Gorde ezazue hurrengo grafiko hau, oso lagungarria izango baita edozein momentuan zalantzak argitzeko.

Zein da argi zuzena?

Zuzena esaten dugunean, kamerak eta estandarrek zuzen bezala ulertzen duten argia da. Baina gu izan behar gara argi hori zehazten dugunak. Argazkiak ez dira estandar bat soilik, eta nahieran erabili behar dugu argia. Ilunago edo argiago nahi dugunean argazkia, -1 edo +1 balioan jarri beharko dugu fotometroa, edo -2/+2...

Argazkiotan ikusten duzuenez, -2 , 0 eta + 2 balioak daude. Erdikoa da «zuzena», baina gaua irudikatu nahi badugu ezkerrekoa aproposagoa da, eta egun argitsua adierazi nahi badugu, orduan, eskumakoa aukeratu beharko genuke.



Esposizioaren hirukia

Abiadura eta diafragma erabili ditugu orain arte argia kontrolpean edukitzeko, oraingoan, baina, ISOa ere erabiliko dugunez, hiru alderdigaz jolastuko gara. Horregatik, hiruki bategaz hobeto ikusten da.

Esposizioa 0-an uzteko (edo gura dugun balioan, aurretik esan baitugu beti ez dela 0 izan behar) egiten ditugun aldaketek, pauso bat gora edo behera egiten dugunean, hirukiaren beste bi balioei eragingo die.

Adibide bat jarriko dugu hobeto ulertzeko taularen erabilera eta hirukia. Kalean gaude egun eguzkitsu batean, eta hauek dira kameraren balioak:

ISO100 | Abiadura 125 | Diafragma f/5.6

Enkoadraketa egin eta fotometroak +2 markatzen digu, beraz, bi argi-puntu jaitsi behar ditugu:

1go aukera: Abiadura igo 500era, eta mugimenduan dagoena izoztuta bezala agertuko da.

2. aukera: Diafragma itxi f/11ra, eta eremu sakontasun handia edukiko dugu. Hortaz, fokuan agertuko da dena, lehen planotik fondora.

Taulan begiratzen dugunean, ez digu esango zehazki zein balore jarri behar dugun, horretarako fotometroa daukagu. Lagungarria izango da diafragma, abiadura eta ISOaren eragina gogorarazteko, eta horren arabera guk erabakitzeko zein den gehien komeni zaigun aldarria. Batzuetan diafragma eta eremu sakontasuna beharko ditugu; besteetan, aldiz, abiadura izango da lehentasuna; eta bi horiekaz ez dugunean argi nahikorik, ISOa igoko dugu: gure azken komodina.

ISOa, sentsorearen sentikortasuna



Gaur egun bizi garen mundu digitalaren karretea da sentsorea: gure pelikula edo euskarri fotosentikorra. Pelikula erabili dugunontzako normala zen ISO edo sentikortasun finko bat edukitzea, karretea aldatu ezean. ISO digitalak ekarri digun aurrerapenetako bat da sentikortasun hori aldakorra izatea, gure esposizioaren kontrolerako komodina izango dena. Kamera bakoitzak bere oinarrizko ISOa du, batzuek ISO 200, beste batzuek ISO 100... Garrantzitsua da jakitea zein den gurearen oinarrizkoa, eta, ahal dugunean, hori erabiltzea.

Puntuak

Aurreko aldarriakaz bezala –diafragma eta abiadura–, puntuetan banatzen dira ISO balioak ere. Hau da, pasatzen garenean ISO 100etik ISO 400era, bi puntu igo dugu gure sentsorearen sentikortasuna, eta, berez, bi argi-puntu gehiago jasoko ditugu. Tarteko eskalak ere badira, kameren arabera, batzuk pauso erdia eta beste batzuk pausoak herenetan markatuko dituzte:

ISO100 - ISO125 - ISO160 - ISO200 - ISO250 - ISO320 - ISO400 - ISO500 - ISO640 - ISO800 - ISO1000 - ISO1250 - ISO1600 - ISO2000 - ISO2500 - ISO3200.

Zarata digitala

Argi gutxi dagoenean, eta aukera gehiagorik ez badago, esan dugunez, ISOa igoko dugu, honek dakarren arazoagaz: gure argazkietan zarata digitala agertzen hasiko da.

Zarata hori zergatik sortzen da? Gure sentsorearen seinalea bortxatuz lortzen dugulako bere sentikortasuna igotzea, eta, horregaz, seinalea apurtzen dela esan genezake; zenbat eta bortxatuago orduan eta zarata gehiago.

Horregatik da hain garrantzitsua jakitea zein den gure kameraren oinarrizko ISOa, eta ahalik eta gutxien igotzea, behar beharrezkoa ez bada.

Kamera bakoitzean sentsorea ezberdina denez, probak egin beharko ditugu jakiteko zein den gure gehienezko ISO erabilgarria. Horretarako, atera argazki berdina, tripode batean ahal bada, eta argi gutxigaz hobe, eta joan aldatzen ISOa (beti ere beste balioak egokituz, fotometroa 0-an mantentzeko). Hasi minimotik, eta igotzen joan. Gero, ikusi ordenagailuan argazkiak, eta baloratu zein den ISO maximoa: aztertu zenbat zarata duten ISO altuko argazkiek, eta aukeratu zuen topea. Horrela, ISOa igo behar duzuenean, beti jakingo duzue zenbatera igo ahal izango duzuen argazkia kaxkarregia izan ez dadin.

Foku-luzera eta ikusangelua

Objektiboen mundua zabala da, eta gure nahien arabera erabaki beharko dugu zein foku-luzera den egokiena gure argazkietarako. Horretarako, ikusangelua eta haien beste ezaugarriak ikusiko ditugu.

Objektiboa

Argi izpiak sentsorera bideratzen dituen optika sistema da. Forma ganbileko lente bat edo gehiago ditu, fokua izeneko puntu batean zeharkatzen duten argi izpiak proiektatzen dituena. Kameragaz enfokatzen dugunean, foku-puntua kameraren sentsoreagaz bat etorrarazi behar dugu, irudi garbia lortzeko.

Foku-luzera eta ikusangelua

Lente baten distantzia edo foku-luzera da lente baten zentro optikoaren eta irudia jasotzen den fokuaren (edo foku-puntuaren) arteko distantzia (kamera digitaletan, sentsorean). Objektiboen sailkapena foku-luzeraren arabera egiten da. Foku-luzera milimetrotan neurtzen da (mm), baina ez digu adierazten kameraren eta subjektuaren arteko distantzia fisikoa. Lentearen gehikuntza-propietateei dagokie, hau da, lentearen zentro optikoaren eta gure kameraren sentsorearen arteko distantziari.

Full-frame edo biderkatze-faktorea

Kontuan izan behar dugu beti biderkatze-faktorea. Ikusi dugun sailkapena argazki analogiko edo 35 mm-ko (*full-frame*) tamainako sentsoreetan oinarrituta dago, hau da, karrete-filmek betidanik izan duten tamainarako. Baina, argazkigintza digitalean sentsore guztiek ez dute tamaina bera, eta gure foku-luzera 35mm-ko oinarrietan zenbatekoa den jakiteko, eragiketa bat egin behar dugu. Adibidez, gure kamera digitalean 12-60 mm-ko objektibo bat muntatuta badugu eta gure sentsorerako biderkatze-faktorea «2x»koa bada, foku-luzera faktore horregaz biderkatzen dugu; beraz, 24-120 mm-ko objektiboagaz ari gara. Horrek gure objektiboaren benetako ikuspegiaren angelua ezagutzen lagunduko digu.

Enfokatzeko gutxieneko distantzia

Enfokatzeko gutxieneko distantzia: hurbilen enfokatu daitekeen distantzia da. Distantzia horretatik beherako argazki bat egiten saiatzen bagara, objektiboak ezingo du enfokatu, eta irudia lausotuta aterako da.

Foku-luzera

8mm Fisheye | 16-35mm | 35mm | 50mm | 70-200mm | 200-400mm

Ikusangelua



Sailkapena

6-18mm *Fisheye* (arrain-begia)
Ikusangelu maximoa ematen dute, 180 gradutara iritsiz. Oso irudi ikusgarriak eta deformatuak sortzen dituzte. Askotan, ertzak ilun edo beltz agertzen dira.

<24mm super angeluhandiak
Ikusangelua giza ikusmenarena baino handiagoa da. Ez da arrain-begietan bezain zabala, baina ia. Argazkiak ere deformatuta ateratzen dira.

24-35mm angeluhandiak
Gure argazkiei errealismo handia eskaintzen diete, ia guztia enfokatuta atera baitezakete, hau da, eremu-sakonera handia dute. Kontuan izan behar da zenbat eta gehiago hurbildu objektu bat kamerara orduan eta distortsionatuago egongo dela. Eremu irekietan erabili ohi dira, paisaia, arkitektura edo barruko guneetan, eta objektibo nahiko argitsuak izaten dira.

50mm estandarra
Giza ikuspegiagaz antz handiena duenez, ikasteko gomendatzen da. Objektibook sortzeko sinpleagoak direnez, merkeagoak izaten dira, eta kalitate eta argitasun handia eskaintzen dute. Erretratuko argazkigintzarako asko erabiltzen dira, diafragma oso irekiak dituztelako, eta horrek eremu-sakonera murrizten laguntzen du, erretratuari garrantzi handiagoa emateko.

>70mm teleobjektiboak
Foku-luzera handienak dituztenak dira. Planoa asko ixteko aukera ematen digute, fisikoki hurbildu behar izan gabe. Ezinbestekoak dira kirolen eta naturaren argazkigintzarako, adibidez.

Makro / Mikro
Enfokatzeko gutxieneko distantzia oso baxua dute, hortaz, asko gerturatzeko aukera ematen dute. Distortsio gutxien eskaintzen dutenak dira. Intsektu edo objektu txikien argazkigintzarako aproposak dira.



Finkoa ala zooma?

Jakin behar dugu fokal finkoak, aldakorrak edo zoomak daudela. Finkoek foku-luzera zehatza baino ez digute ematen; adibidez, 50 mm-ko objektiboa. Zoomak, aldiz, foku-luzera aldatzeko aukera ematen digute, adibidez, 24-120 mm, objektiboa aldatzen ibili beharrik gabe. Orokorrean, objektibo finkoek kalitate gehiago ematen dute, baina kalitatea objektibo bakoitzaren eta bere ezaugarrien araberakoa da.

Kalitatea

Osatzen duten materialen eta lenteen araberakoa da objektiboen kalitatea. Zenbat eta hobea izan lentearen kalitatea, orduan eta garestiagoa izango da. Manualak edo auto-fokukoak izan daitezke; gaur egun, ia guztiak auto-fokukoak dira, eta oso azkar eta ondo funtzionatzen dute.
Batzuek, gainera, egonkortzaile optikoa dute, eta horrek garestiagoak izatea eragiten du.

Filtroak

Askotan filtroak erabiltzen dira objektiboetan, gehienetan babes bezala. Baina badaude ere polarizadoreak eta bestelakoak.

Koloreak eta zuriaren balantzea

Kolore biziak ala asegabeak? Horixka ala urdintsua? Gure argazkietan dauden koloreak zelan erabili eta kontrolpean edukitzen ikasiko dugu oraingoan.

Zuriaren balantzea edo «WB»

Zuriaren balantzea eta kolore-tenperatura oso lotuta daude. Kolore-tenperatura Kelvin-en definitzen da; hau da, argi iturri zehatz baten kolore-tenperatura neurtzeko erabiltzen den eskala. Zurien balantzean Kelvinak deskribatzeko nomenklatura «K» besterik ez da. Argazkilari askok «Kelvin graduak» deitzen diete.

Kolore-tenperatura argiaren propietate fisiko bat da, eta argi-iturri bakoitza kolore-tenperatura desberdin batekaz identifikatzen da.

Adibidez, kandelen argia eta tungstenoa oso beroak dira kolore-tenperaturari dagokionez, 1500-3000 K arteko balioakaz; aldiz, argi fluoreszentea 4000-4500 K inguruan kokatuko litzateke. Eguneko argiaren kolore-tenperatura nahiko neutroa da, 5000-6500 K-koa, eta, oro har, kanpoan tiro egiteko aukerarik onena izango da. Hala ere, zerua hozten bada, baliteke zurien balantzea doitu behar izatea, 7500 K ingurura, tonu urdinei berotasuna gehituta konpentsatzeko.

Kameraren kolore-tenperaturaren eta zuriaren balantzearen doikuntzak kontraesankorrak izan daitezke. «WB» automatikoan dagoenean, zure kamerak automatikoki konpentsatuko du kolorearen tenperatura. Hala ere, zure irudia hotzagoa izatea gura baduzu, kolore-tenperatura beroagoa aukeratu beharko duzu, eta alderantziz, zure kamerak kontrako kolore-tenperaturagaz konpentsatu ahal izateko.

WB preset moduak

Orokorrean, automatikoan erabiliko dugu, baina hauek dira zuen kameretan topatuko dituzuen zuriaren balantzearen preset-ak.

Automatikoa ala manuala?

Automatikoan erabiliz gero, kamerak irakurriko ditu eszenan agertzen diren koloreak, eta erabakiko du zein den egokiena. Batzuetan, batez ere argi-iturri ezberdinak daudenean, arazoak sortuko zaizkigu eta tonu arraroak aterako zaizkigu argazkietan. Kasu horietan, hoberena da preset moduak erabiltzea, nahi dugun kolorea edo tonuari lehentasuna emanez.

RAW edo JPG-n?

Aurrerago hitz egingo dugu kameraren argazkien formatuaz, baina garrantzitsua da jakitea JPG formatuan aritzen garenean zuriaren balantzea beti ondo erabili behar dugula, behin argazkia eginda, moldatzeko aukerarik ez dugulako izango. RAW formatua negatibo digitala da, eta, horri esker, argazkia egin ostean oraindik ere aukerak izango ditugu irudiaren nondik norakoak moldatzeko.



Zirkulu kromatikoa

Koloretako zirkulu kromatikoa gorri, hori eta urdinean oinarrituta dago.

Hiru ordena daude: kolore primarioak, sekundarioak eta tertziarioak.

RYB kolorean lan egiten denean, kolore primarioak gorria, horia eta urdina dira. Hau da, gainerako kolore guztiak eratortzen diren hiru kolore garbiak dira. Lehen mailako bi kolore hartzen baditugu, eta berdin konbinatzen baditugu, bigarren mailako kolorea lortuko dugu. Azkenik, kolore tertziarioa kolore primario eta sekundarioaren konbinazioa izango litzateke.

Kolore aldagaiak

Zuen argazki-ibilbideko uneren batean negatibo bat edo artxibo digital bat –seguru baietz– errebelatu baduzue, HSL (*hue, saturation, luminosity*) kontzeptua ezagutuko duzue: tonua, saturazioa eta argitasuna.

Tonua: kolorea bera da; kolorearen esentzia (berdea, horia) soilik tonuaren ordez «kolore» hitza erabiltzen dugu, baina zentzua berbera da.

Argitasuna: tonu baten argitasunagaz edo iluntasunagaz lotzen da. Zenbat eta distira gehiago, orduan eta argiagoa; eta zenbat eta distira gutxiago, orduan eta ilunagoa.

Saturazioa: kolorearen garbitasun-maila da. Zenbat eta saturazio handiagoa, orduan eta kolore purutasun handiagoa; eta zenbat eta saturazio txikiagoa, kolore «itzalagoak», gris neutrotzat jotzen den minimora iritsi arte.

Hotzak ala beroak?

Ez da berdina argazki urdinxka bat edo ilunabar laranja bat, koloreek islatzen dizkiguten sentimendu edo sentsazioak oso ezberdinak direlako. Koloreen ezaugarriak edo gure gizartean duten kutsua zerrendatuko dugu orain, zuek baliabide bezala erabil ditzazuen zuen argazkietan.

Urdina: bakea, lasaitasuna, hotza, harmonia, garbitasuna, zerua eta ura.
Bioleta: erregetza, noblezia, espiritualtasuna, misterioa, lorea eta jakinduria.
Gorria: emozioa, desioa, energia, beroa, intentsitatea eta pasioa.
Laranja: energia, oreka, gogo bizia, berotasuna eta bizitasuna.
Horia: poza, zoriontasuna, baikortasuna, eguzkia eta adiskidetasuna.
Berdea: natura, ingurumena, osasuna, zortea, berrikuntza eta emankortasuna.

Hotzak: kolore lasaigarriak, urdinak bezalakoak.
Beroak: kolore kitzikagarriak, hala nola gorriak, laranjak eta horiak.
Mistoak: esanahi fresko eta beroa duten koloreak, hala nola bioleta eta berdea.
Neutralak: kolore lurtarrak bateratzea, hala nola marroiak, grisak, beltza eta zuria.

Harmonizazioa: elkarren ondoan kolore-gurpilean edo zirkulu kromatikoan agertzen diren koloreak eta elkarregaz ondo lan egiten dutenak.
Kontrastatzen: beste kolore batzuekaz bereizitako koloreak kolore-gurpilean.
Osagarriak: askotan elkar jotzen duten gurpilaren kontrako muturretako koloreak.

Kolore biziak

Koloreen teoria hau guztia praktikan jar ezazue, eta bilatu zuen argazkietan koloreen konposaketak. Batzuetan, kolore asko ager daitezke, eta beste batzuetan kolore gutxigaz argazki ikusgarriak lortuko dituzue, jolastu eta gogoratu gure erabakia dela zer garrantzia duten argazkien koloreak.

Argazkien elementuak nola antolatu

Bertikala ala horizontala? Hiru elementu nagusi ala erritmo bat? Argazkietan agertzen diren elementu ezberdinen garrantziaz eta haien kokapenaz arituko gara hemen.

Nola irakurtzen ditugu irudiak?

Argazkiak ezkerretik eskumara eta goitik behera ikusten ditugu, liburu bat irakurtzen dugun moduan, baina askoz azkarrago: segundo batean irudi osoa ikusteko gai gara. Ondoren, detaileak eta bestelakoak lasaiago irakurtzen arituko gara, baina lehenengo begiradan konposaketak garrantzi handia du. Horregatik saiatuko gara konposaketaren oinarriak azaltzen.

Formatuak

Gure irudiak egiterakoan, formatua da aukeratu behar dugun lehenengo gauza; bertikala ala horizontala egitea ez da berdina, edo formatu karratua ala panoramikoa erabiltzen badugu.

Horizontala:
Formatu estandarra bezala ulertzen duguna da, gure begiradagaz lotzen baitugu. Horizonteagaz oso ondo egokitzen den formatua da, lasaitasuna eta espazioak transmititzeko egokia. Altuera murritza izanda, behartzen gaitu elementuak ezkerretik eskuinera edo alderantziz sekuentziatan antolatzera, gure pertzepzio naturala indartuz.

Panoramikoa:
Oso egokiak dira paisaiarentzat: ezkerretik eskuinerako ikuspegiaren ibilbide ziklikoak irudiarekiko interesa pizten du. Espazio zabalak edo muntaiak egiteko egokia da ere.



Bertikala:
Grabitateari buruz dugun pertzepzioak eragina du formatu honetan: beheko aldea «oinarri» gisa hartzen dugu, eta sarritan elementu astunenak beheko erdian kokatzera bultzatzen gaitu. Pertsonak, zuhaitzak edo bestelako elementu bertikalak ondo egokitzen dira, eta aldizkari edo posterrak egiteko formatua da.



Karratua:
Karratua, berez, egonkorra da, eta oso ona da konposizio geometrikoakaz jolasteko. Egokia da erdigunean kokatzeko gure elementu nagusia.

Herenen erregela

Erregela honen oinarria da irudi bat herenetan banatzea (horizontalki zein bertikalki); hala, bederatzi zati geratuko zaizkigu guztira. Elkarguneetan edo lerroetan zehar interesguneak jartzen baditugu, hartuko dugun argazkia orekatuagoa izango da, eta ikusten duen orok modu naturalagoan elkar eragiteko aukera izango du.

Irudi batzuek herenen erregelaren puntu edo lerro bat baino gehiago erabiliko dute; beste batzuek, berriz, lerro edo puntu bakarra aplikatuko diote konposizioari, eta irudiaren beste elementu batzuk hondoan mantentzen utziko dute.

Horizontearen kokapena

Horizontea non kokatu oso garrantzitsua da, herenen erregela kontutan hartuz, goian, erdian edo behean jar daiteke. Zeruertzaren lerroa behe-herenean jartzen badugu, zeruak edo goiko aldeak indar handia izan beharko du.
Zerua laua edo pobrea bada eta behealdeak garrantzi handiagoa badu, aldrebes egingo dugu, goi-herenean lerroa jarriz.
Horizontea erdian jartzen dugunean, kontu handiz ibili behar dugu konposizioagaz, zailagoa baita.

Simetria

Simetria beti da atsegina ikusmenarentzat. Oreka perfektua sortzen da, irudiaren erdigunea erreferentetzat hartuta, eta pisu bisuala berdintasunez banatzen da irudian.

Detaileak

Xehetasunak erabili hondoa nabarmentzeko. Ikuspegien kontrastea lortu dezakegu, argazkiaren hondoa nabarmentzeko, lehen planoan detaile bat kokatuz.

Erritmoa, patroiak, lerroak...

Erritmoa esaten zaio elementu baten errepikapenari, elementu bat errepikatzen denean konposizioaren barruan, eta horren kokapenaren arabera, erritmoa lortuko dugu.
Patroiak eta ehundurak ere atseginak dira gure burmuinean. Beraz, aprobetxa ditzakegu inguruko guztiak erabiliz.
Loreen forma bezala, baldosak, alfonbra bat. Argazkiak egiteko oso elementu adierazgarriak izan daitezke.
Lerroak ere oso lagungarriak izaten dira konposizio bitxiak egiteko: kableak, eraikinen ertzak edo errepide eta bideak erabili ditzakegu gure argazkietan lerroakaz jolasteko.

Espazioaren araua

Argazkigintzan ezagunenetakoa da. Erritmo bat markatzen duen elementu bat badugu, begirada bat adibidez, edo mugitzen ari den objektu bat, elementu hori doan lekurantz espazio gehiago utzi behar dugu, bestela, konposizioan tentsio gehiegi sortuko da.

Arauak apurtuz!

Arau eta gomendio asko daude horietaz aparte. Informazio gehiago bilatu eta arau ezberdinak ezagutzeak asko lagunduko gaitu argazkien konposizioak hobetzen.
Eta behin arau eta konposizioen elementuak ezagutzen ditugula, arauak apurtzeko prest egongo gara ere. Noizbehinka ahaztu arauak, eta gida zaitezte zuen irudimenagaz!

Kameraren moduak eta noiz erabili

Abiadurari lehentasuna eman ala diafragmari? Kameren automatismoak laguntzeko daude. Horiek ezagutu behar ditugu kameren menu luzeetan ez galtzeko eta gure argazkietan kontzentratu ahal izateko.

PASM eta Auto

Gure argazki kameretan modu ezberdinak ditugu. Batzuk erdi automatikoak dira, besteak, aldiz, manualak. Argazkiak egiterakoan, kontuan eduki behar dugu zein den modurik egokiena, edo zeinek laguntzen digun gehien. Teknika ikasteko edo argazkilaritzaren teknikak ondo ezagutzen ditugunean, egokiena da modu manuala erabiltzea, kameraren kontrola, oso-osorik gure esku dagoelako.

Kiroletako argazkiak egin beharra badugu, eta oraindino oso trebeak ez bagara, aldiz, S moduak lagunduko digu; berriz, hasiberriak garenean, eta argazkiak egitea besterik ez bada gure nahia, modu automatikoa erabili beharko genuke. Oraingo honetan, aukera ezberdinak ikusiko ditugu, baina gogoratu kamera bakoitzean hamaika aukera daudela eta kameren liburuxketan ondo informatzea dela inportanteena.



Auto - Automatikoa:

Modu automatiko osoa argazkilari hasiberriek erabiltzen duten kamera modu nagusia da.

Horrela, kamerak automatikoki aukeratuko ditu doikuntza guztiak. Kamerak esposizio-doikuntza nagusiak ezartzen dituen kameraren programa-moduan ez bezala, tiro-modu horretan kamerak fokuratzeko modua, neurtzeko modua, zurien balantzea, kolore-profila eta abarrak ere ezarriko ditu.

Kamera trinko edo smartphone gehienen antzera funtzionatzen du. Modu hau erabiltzea tentagarria izan daitekeen arren, oso mugatua da, eta ez da gomendatzen.

Kamera moduaren sinboloa, orokorrean, berdez «auto» bezala irudikatzen da, eta kamera bat edo, besterik gabe, kamera pantaila bezala.

P - Programa:

Kameraren programa modua edo kameraren P modua oinarrizko moduetako bat da, eta kameraren modu automatikotzat hartzen da.

Modu honetan, kamerak irekiera eta abiadura ezarriko ditu eszenako argiaren arabera, zeroko esposizio-balioa lortzeko. Kameraren dialak esposizio-triangeluaren doikuntza nagusiak kontrolatzen ditu, baina ez beste doikuntza batzuk, hala nola neurtzeko modua, zurien balantzea, fokuratze-eremua, etab.

Modu ona da hasiberrientzat eta oinarrizko doikuntzarik onenak zeintzuk diren erabakitzea zaila den egoera zail horientzat. Hala ere, oro har, ez nuke modu hori gomendatuko, ez dugulako modurik izango irudiaren alderdi garrantzitsu batzuk erabakitzeko, hala nola eremu sakontasuna, mugimendua eta abar.

A/Av - Diafragmari lehentasuna:

Ksmeran Av edo A modua hautatzen dugunean, irekiera (diafragma) finkatu beharko dugu, eta kamerak automatikoki ezarriko du abiadura esposizio orekatua lortzeko. Irekiera zabala erabiltzen bada, kamerak abiadura azkarragoa hautatuko du; irekiera itxiagoa erabiltzen denean, berriz, kamerak abiadura motelagoa ezarriko du.

Kameraren lehentasun-modu honi esker, eremu-sakontasunaren gaineko kontrola izango dugu.

Argazkigintzan gehien erabiltzen den kamera-moduetako bat da hau, eta argazkilari profesionalek asko erabiltzen dute.

Nik erretratu argazkiak, edo hondo lausotua lortu nahi dudanean erabiltzen dut irekieraren lehentasuna. Horrela, irekidura zabal bat hauta dezaket hondo lauso bategaz eremu-sakontasun estua lortu nahi badut, eta nire kamerak automatikoki doituko du obturazio-abiadurarik onena.

Tv/S - Abiadurari lehentasuna:
Obturazioarekiko edo abiadurarekiko lehentasun-modua edo Tv/S kamera-modua.
Kameraren Tv edo S modua erabiliz, abiadura finkatuko dugu, eta kamerak irekidura ezarriko du esposizio on bat lortzeko dagoen argiaren arabera. Abiadura azkarra finkatzen dugunean, kamerak irekiera zabala hautatuko du; abiadura zenbat eta motelagoa izan, orduan eta estuagoa izango da kamerak aukeratutako irekiera.
Kameraren lehentasun-modu hau erabili ohi da subjektuaren mugimendua izozteko edo, aitzitik, haren mugimendua harrapatzeko abiadura espezifikoa behar dugula dakigun egoeretan. Horregatik, asko erabiltzen da kiroletan.
Hala ere, muga batzuk daude abiadurari lehentasuna emateko moduan. Adibidez, abiadura oso azkarra erabiltzen dugunean, argi nahikorik ez badago, kamera mugatuta egongo da lentearen irekiera maximoaren arabera, eta irudia azpiesposiziogaz geratuko da.
Nire kasuan, kamera modu hau mugimendua izozteko behar dudan abiadura dakidanean baino ez dut erabiltzen, adibidez, kiroletan eta animaliak edo ibilgailu azkarrak fotografiatzeko. Batzuetan, kontrakoa lortzeko ere erabil daiteke; abiadura motela duten argazkiak egiteko.

M - Manuala:
Kameraren modu aurreratua da hau, eta guztiz manuala den modutzat hartzen da.
Kameraren gaineko kontrol osoa izango dugu, esposizio-doikuntzarik onenak zeintzuk diren erabakitzeko, argi-baldintzen eta subjektuaren arabera.
Izango dugun gida bakarra kameraren fotometroa izango da, eta esposizio-balioa guk geuk aukeratuko dugu, argazki argiago edo ilunagoa nahi dugunean.
Hasten ari diren argazkilariei beldurgarria iruditu ohi zaien arren, modu hau da kameraren modurik onena eszena geuk nahi dugun bezala islatzeko, eta menderatu behar dugun kamera-modua da, trebezia lantzeko.
Pertsonalki, kameraren modu manual hau erabiltzen dut egoera gehienetan eta, kasu askotan, izarrei argazkiak edo panoramikak egiterakoan ezinbestekoa da!
Modu manuala erabil daiteke reflex eta *mirrorless* kamera guztietan, eta, askotan, konpaktuetan ere bai.
Bere ikonoa M modua da kameraren dialean.
Ahal duzuenean, erabili modu manuala, eta azkarrago ikasiko duzue kamera ondo erabiltzen; gainera, horrek asko lagunduko dizue beste gauzetan hobetzeko.

Bereziak

Badaude bestelako modu bereziak kameretan. Orokorrak direnak ikusiko ditugu hemen, baina gogoratu kamera bakoitzak bere ezaugarri eta modu propioak dituela.

Erretratu modua
Modu honek diafragma zabala ezartzen du eremu sakontasun txikia lortzeko eta erretratuetan hondoa desenfokatzeko.

Paisaia modua
Kameran dagoen mendiaren ikonoa paisaia moduagaz lotuta dago. Modu honek eremu sakonera estua erabiltzen du paisaiei argazkiak ateratzeko.

Kirol modua
Abiadura azkarragoa ezartzen du, animaliak, kirolak eta mugimendu azkarreko ekintzak daudenean subjektuen mugimendua izozteko.

Makro modua
Makro modua erabiliz, kamerak objektibotik gertu dauden subjektuak enfokatzen du. Animali txikiak, intsektuak edota loreak ateratzeko erabiltzen da sarri.

C edo modu pertsonalizatuak
Kamera batzuetan, gure modu semiautomatiko edo pertsonalizatuak sor ditzakegu; gehien erabiltzen ditugun balioak edo ezaugarriak gorde eta azkarrago lan egiteko laguntzen digute.

ISO automatikoa edota mugatua

ISO balioa, normalean, manualean erabiliko dugu, guk aukeratuta, baina aukera dago ere automatikoan jartzeko. Batzuetan lagunduko digu, adibidez, argi gutxi dagoen inguruetan edo azkar erabaki behar ditugunean beste bi balioak (abiadura eta diafragma).
Hori bai, gomendio garrantzitsua: ISO automatikoa erabiltzen baduzue, muga ezazue. Gure kamera ezagutu behar dugu eta jakin zein ISO erabili zarata digitala agertu barik. Kamera batzuetan muga 3200 ISO izango da, eta beste batzuetan 800 ISO, gure kamerak sortzen duen zarata digitalaren arabera.

Edozein esperimentu da ona ikasteko

Mugikorraren pantaila, ispilu bat, soka eta torloju bat; argazkilaritzaren munduan mila trikimailu daude. Bai artistikoki esperimentatzeko, baita teknikoki laguntzeko ere dauden erreminta batzuk ikusiko ditugu oraingoan.

Tripodea ahaztu zaizu?

Esposizio luzea egin nahian eta tripoderik ez? Ez kezkatu, alternatiba asko daude. Askotan, denbora luzeko argazki bat egin nahi dugu, edo argi gutxi dagoelako kamera egonkor jarri behar dugu, eta tripoderik ez dugu. Hemen doaz aukera batzuk.

Hormak, farolak...

Bila ezazu pareta edo antzeko zeozer zure gorputza egonkor egoteko, eta, argazkia egiterakoan, probatu bi argazki segidan egiten, bigarrena beti egonkorrago ateratzen baita. Eta sakatu botoia atzamarraren erdiko parteagaz, ez puntagaz, horrela mugimendua gutxituko dugu.

Soka eta torlojua

Hauxe da tripodeari alternatiba merke eta erosoa da: soka bat, 1,5 metrokoa, eta torlojua, gure kameraren oinarrian lotzeko. Zapaldu soka oin bategaz, zure aurpegiaren altueran kamera edukita, eta sokak sortzen duen tentsioak lagunduko dizu egonkor mantentzen.



Dilista zakua

Dilistakaz betetako zakutxo bat egin (arroza-edo izan daiteke baita ere). Kamera zakuaren gainean jarrita, oso erraza da forma moldatzea eta kamera egonkor uztea; hau batez ere abiadura motelak erabiltzeko edo lasaitasunez erabiltzeko da. Pisuagatik-edo ez baduzu gustuko, hartu zure jaka, lurrean edo murru batean jarri, eta berdin balioko du, gure arropagaz erraza da kamera nahi dugun moduan jartzea ere.

Mugimendua

Mugimendua beste tresna bat da; artistikoki gure argazkietan mugimendua erabil dezakegu, ekorketa (barrido) bategaz, argiagaz margotzen, edo zergatik ez, normalean jendez gainezka dauden tokiak jendez husteko.

Ekorketa edo barridoa

Ekorketa sinplean, argazkilariak elementu nagusiaren mugimendua jarraitzen du kameragaz. Hori egiteko, finka ezazu abiadura baxua hondoa mugituta gera dadin eta zure elementu nagusia estatikoa izan dadin. Horrela, hondoak eragindako mugimendu-sentsazioak indarra emango dio zure elementu nagusiari. Teknika hori erabiltzean, erretratatutako subjektua edo objektua ez da beti zehatz-mehatz agertuko, baina horrek askoz indar handiagoa emango dio irudiari. Batez ere kiroletan erabilia, ekorketa egiteko trebezia beharko dugu; normala da lehenengo saiakeran txarto ateratzea, beraz praktikatu eta esperimentatu ezazue.



Argiagaz margotzen

Light-painting bezala ezagutzen dena, argazkiaren historia bera da: argiagaz marraztea da. Gauez hobeto, baina egunez edo leku ilunetan ere egin daitekeen teknika da. Tripodea-edo beharko dugu kamera estatiko mantentzeko, eta abiadura oso baxua erabiliz, argia duen edozein gauzagaz marraztu ezazue, flash bat, led makila, mugikorra...

Honetan mila aukera daude, zuen kontura irudimena lantzea!

Jendea dago soberan argazkian?
Denok egin nahi izan dugu argazkia leku turistikoren batean; jendez gainezka dago, eta ezin. Bada, tripodea eta Photoshop edo antzeko programa batzuekaz aukera dago. Tripodea beharko dugu, argazki berdina zenbait alditan egin beharko dugulako, eta gero, edizioan, hutsik dauden zatiak hartu eta jendea desagerrarazi.



Efektuak

Gure irudimena lantzeko mila aukera daude, hemen batzuk bakarrik aipatuko ditugu, baina zuen esku gauza eta trikimailu berriak bilatzea, argazki berriak egiten gozatzeko.

Ispiluak eta kristalak
Prisma bat hartu eta objektiboaren aurrean jarri, ikusiko duzu, adibidez, erretratuak egiteko zenbat aukera ematen dituen, edo koloreak zelan aldatzen dituen. Modu berean, ispiluakaz jolastuz, konposizioari beste buelta bat ematen ikasiko dugu.

Ispilua eskura ez badugu, kontuan eduki uragaz ere ispilu-efektua lor dezakegula, edo mugikorraren pantaila beltzagaz ispilu efektua daukagula ere bai.

Kartoizko edo plastikozko filtroak
Askotan, objektiboaren aurrean jartzen ditugun filtroez aparte, gure filtro pertsonalak egin ditzakegu, irudian ikusten duzuen bezala: kartoiagaz nahi duzuen forma egin, eta objektiboaren aurrean jarrita, hondoan dauden argi lausotuek filtroaren forma hartuko dute.



Zinta itsasgarria eta koloretako errotulagailuakaz erretratu ezberdinak lor ditzakegu. Gaur egungo mugikorrek edo aplikazioek simulatzen dituzten efektuak eskuz egitea oso erraza da, eta, orokorrean, irudimena lantzen lagungarri izango zaigu.

Mugikorragaz ere argazkilari

Soinean daramagun edo gehien erabiltzen dugun kamera izango da gure lagunik onena. Beraz, askorentzako, sakelakoa izango da egunerokoan erabiliko duten kamera, eta, horregatik, beharrezkoa da ondo ezagutzea.

Ondo ezagutu zure mugikorra

Esposizioa zelan neurtu badakizu? Oso garrantzitsua da erremintak ondo ezagutzea, horregatik, sartu zure kameran, arakatu menuan eta, aukera ezberdinetan, seguru gauza berriak topatuko dituzula.

Esposizioa neurtzen dugu gure lauki edo borobilagaz, eta + - aukerakaz, argitu edo ilundu egingo dugu.

Konposaketa egiteko lagungarri bazaizu, hiru herenen erregela markatzeko aukera izango duzu seguruenik.

Eta kokapena txertatzeko aukera aktibatuta edukiz gero, argazkiak zure galerian bilatzerakoan, mapa batean bilatu ahalko dituzu.

Filtroak ere edukiko ditu gailuak, zuri-beltzean jartzeko, koloreak moldatzeko... Baina, seguruenik, aplikazio baten bitartez argazkiak hobeto editatuko dituzu.



Kameraren moduak

Mugikorragaz ere erabil dezakegu argazkien ufada, zeozer izoztu guran edota kiroletako argazki azkar bat ez galtzeko. Eta mugikorraren arabera, modu eta aukera ezberdinak izango ditugu. Batzuek erretratu modua dute, eta, askotan, erretratua eginda, hondoa gehiago edo gutxiago lausotzeko aukera izango dugu, argazkian bertan editatuz.

Makro aukera nahiko onak izaten dute ere, gauza txikiak gordetzeko aukera ematen digutenak.

Garbi mantendu optika

Argietako izpiek distirak sortuko dituzte gure irudietan, eta are gehiago optika zikin dugunean. Argia arraro ikusten baduzu edo argazkia erdi lausotua, garbitu ezazu optika, askotan horregatik izaten baita.

Ez erabili zoom digitalik

Gaur egungo telefono mugikor askotan objektibo ezberdinak daude: angelu handia eta normala; eta beste batzuk, gainera, zoom edo teleobjektiboa ere badute. Erabil ezazu beti egokiena den objektiboa, baina ez egin zoom digitalik, kalitatea galtzen ari zarelako. Posible bada, gerturatu zaitez argazkia egiteko, edo atxikitu mugikorrentzako dauden lente bereziak, teleobjektibo bereziak bezalakoak direnak.

Flash-a, noiz eta nola?

Ekidin ahal baduzue; inoiz ez erabili flasha, sortzen duen argia eta kontrasteak desitxuratzen baitu argazkia. Erabili bakarrik behar beharrezkoa denean, eta, gogoratu: daukan potentzia, zenbat eta urrunago, orduan eta ahulago izango da. Beraz, ezin duzu gaztelu bat argitu zure flasha erabilita.

Tripodea zure laguna da

Flasha ekiditeko lagun ona da tripodea; gainera, mugikorrarentzako bereziak direnak oso txikiak dira. Kontuan izan ere mugikorretan dauden modu berezi askok kamera egonkor bat behar dutela, TimeLapse efektua egiteko, berbarako. Gauez ere oso lagungarria izango zaigu, edo *selfiak* egiteko atzera-kontaketa erabilita.

Aplikazioak

Milaka aplikazio daude, bai Android zein iOS sintemetarako Batzuk ordainpekoak dira, eta beste batzuk doakoak. Guk hemen aukera txiki bat egin dugu, baina edozein aplikazio deskargatu baino lehen, kontutan eduki bateragarria den ala ez.

Snapseed (Android eta iOS)

Edizio sistema indartsua da aplikazio hau; mila aukera ditu, filtroak eta zure estiloak gordetzeko aukera ematen du ere. Erraza da erabiltzeko, eta azalpenak ditu jakiteko zer egiten ari garen.



Adobe Lightroom eta Photoshop Express (Android eta iOS)

Adobe familiaren aplikazioak ezagunak baditugu, nahiko erraz moldatuko gara hauekaz, ordenagailuen bertsioen oso antzekoak baitira. Hasiberrientzat apur bat latza izan daiteke sistema ondo ezagutzea; horretarako, Photoshop Express aukera hobeagoa da.



Afterlight (Android eta iOS)

Testurak filtroak, argazkiak mozteko aukera, markoak erabili... Aplikazio potentea eta nahiko erraza erabiltzeko.



Open Camera (Android)

Kameraren aukera guzti-guztiak kontrolpean edukitzeko aplikazioa; aukera manualak, argazkien datuak gordetzeko aukera, kalitatea... Mugikorraren automatismoetaz ahaztekoeta manualki kamera erabiltzen ikasteko aukera ona da.



Photoshop Camera (Android eta iOS)

Batez ere sare sozialetan eta selfien munduan murgildu gura baduzue, sticker edo collage bereziak egin, zeruak aldatu eta filtro koloretsu eta psikodeliko asko topatuko dituzue hemen. Lagunakaz ondo pasatzeko aukera izan daiteke baita ere.



Instagram (Android eta iOS)

Aski ezaguna den aplikazio hau erabilgarria izan daiteke zentzu askotan. Argazkilariak topatzeko eta gustuko ditugun estiloak zein argazkiak gordetzeko aukera ematen digu. Halaber, aplikazioaren kamera erabiltzerakoan, jendeak sortzen dituen filtro bereziak probatzeko aukera ematen digu, gorde ahal direnak ere bai, eta selfientzako filtroak nagusi badira ere, filtro oso interesgarriak topa ditzakegu. Gero, argazkia igo gura ez baduzu, gogoratu gordetzeko aukera duzula sareratu barik.

Pertsonak irudietan islatzen

Ispilu bezala, memoria edo artistikoki pertsonen irudiak sortzeko tresna dira erretratuak. Gure gertukoen edo ezezagunen istorioak kontatzeko aukera ematen digute, baita haien begirada nabarmendu ere.

Zer da erretratua?

Erretratua argazki-genero bat da, eta subjektu baten nortasuna bereganatzean datza, gizabanakoa edo taldea izan, argia, hondoa, poseak, teknika edo konposizioa erabiliz. Istorioa, mezua edo emozioa ezinbesteko osagaiak dira edozein erretratu-argazkitan.

Erretratuko argazki-mota asko dago; hona hemen mota horietako batzuk:

- Erretratua (estandarra)
- Modako erretratua
- Autorretratua (*Selfie*)
- Talde erretratua
- Erretratu artistikoa

Hamaika modu daude erretratuak egiteko; ezagunenak, nortasun-agiri edo pose estandar bat egindakoak dira, baina modu asko daude pertsonen isla irudikatzeko. Hala ere, pertsonen erretratuak haiekaz dugun erlazioaren bitartez ere lantzen dira, konfiantza argazkietan ere nabaria baita.

Pertsona ezezagun bati erretratua egiteko, beti da komenigarria komunikazio bat egotea, gutxienez begirada bat, eta elkar onartzea. Baina, betiere, hobeto izango da erretratatu beharreko pertsona ezagutzen saiatzen bagara, horrela bere ezaugarriak nabarmendu ahal izango baititugu argazkietan.

Begiak

Oso garrantzitsuak izango dira begiak gure argazkietan. Gure artean erlazionatzerakoan, pertsonen artean, begiak dira nagusi, eta horregatik dute garrantzia erretratuan.
Begiak fokuan egon behar dira beti, arrazoi artistiko batengatik ez bada, eta zaindu beharko dugu begien norabidea. Ez da berdina begiak kamerari begira egotea edo albo batera.

Begiradaren norabidean, hutsunea uztea komeni da, hau da: pertsonaiaren begiek, airea behar dute gure enkoadraketan. Eskumara begira dagoen pertsona bati, eskuman hutsunea utziko diogu; horrela, ikusleak, eremu horretan pentsatzeko aukera izango du.

Objektiboak

Ez dago objektibo zehatzik erretratuak egiteko, baina egia da askotan erabiltzen den fokala 50 milimetrokoa dela. Objektibo merkeak eta diafragma zabalekoak izaten dira, eta hasiberrientzako gomendagarriak horregatik. Baina edozein fokal izango da baliagarria, gure beharren arabera.

Planoak

Beheko eskeman ikusi ahal dituzue plano mota batzuk; ez dira denak, baina bai orokorrean erabiltzen direnak. Planoan agertzen dena eta kanpoan uzten duguna, informazioa gehitu ala kendu egingo du. Batzuetan, pertsonaren detaile bat interesgarria izan daiteke, eta beste batzuetan, aldiz, bere inguruan kokatzea.

Argia

Argia kontrolpean edukitzea komeni da. Beheko adibidean ikus dezakezuenez, argi-itzaletan dagoen talde batek arazoak emango dizkigu: batzuk, oso ilun atera daitezke; besteak, erreta... Beraz, kontuan izan, aukera izanez gero, argia ondo neurtzea eta, bestela, flash edo bestelakoen bitartez gure helburuetara egokitzea.

Hondoa

Erretratuetan pertsonaia izango da nagusi, baina beti hondo baten aurrean edukiko dugu, beraz, gure hondoan zer agertzen den eta zer ez oso garrantzitsua izango da. Koloreak, gehitu ahal duen informazioa edo ez... Gauza asko baloratu beharko ditugu, eta horren arabera erabaki, hondoa lausotua edo fokuan ateratzea, edo gure pertsonaia lekuz mugitzea ere. Konposaketa garrantzitsua da, eta pertsona gura dugun lekuan kokatzeak lagunduko du konposaketa garbiago edo artistikoago baterako.

Testuingurua

Plano itxiak erabiltzerakoan, pertsonaren detaileetan sartuko gara, baina haien bizitzaren datuak edo istorioa kontatzeko, askotan testuingurua kokatu behar dugu. Horretarako lagungarriak dira plano irekiagoak, non haien bizitza edo ingurua argazkian sartzen dugun. Beste batzuetan ere, argazki bakar bat ez da nahikoa izango, argazkilaritzan orokorrean, argazki ezberdinakaz informazio gehiago kontatuko dugu-eta.

Protagonistekiko lotura

Erretratugilearen eta erretratatuaren arteko harremana argazki-saioaren aurretik ere landu behar da, bere nortasuna eta esentzia atzematea errazteko. Hitz egin haiekaz, eta ahal beste denbora hartu konfiantza minimo bat lortu arte. Eroso sentitu behar dira gure protagonistek, tentsioan badaude, irudian ere tentsioa nabarituko baita, eta hori gure helburua ez baldin bada, akats latza da. Eszenan protagonistak nahi bezala lekualdatu eta mugitzeko, konfiantza-giro batean egon beharko gara.

Eremu zabalak arakatzen

Paisaiak ikusten ditugunean, beti politak iruditzen zaizkigu, postalen modukoak, baina, gero, argazkietan ez da hain erraza ikusitakoa irudikatzea. Oraingoan saiatuko gara pista batzuk ematen paisaia-argazkiak hobetzeko.

Planifikazioa

Paisaiaren argazki on bat lortu gura baduzu, lehenengo araua da plangintza ona izatea. Badirudi horrek ez duela zerikusirik gure azken helburuagaz (paisaia polita lortzea), baina, zalantzarik gabe, garrantzi handia du.
Ondo planifikatzen badugu, argazkiak egiteko kokalekuak aurkituko ditugu, hori egiteko eguneko unerik onena zein den ere jakingo dugu, edo, bertan gaudenean, eguzkiak nondik joko duen aurreikusi ere.

Plangintza ona izateak ere lagunduko digu jakiten ea janzkera berezirik behar dugun gure helmugara iristeko (adibidez, uretako botak), edo itsasertzera joaten bagara, ea marea nola egongo den joango garen unean.

Eta hizpide dugun plangintza hori gauzatu ahal izateko, tresna ugari ditugu, Interneti eta app-ei esker lana errazten digutenak. Erabilienetako batzuk dira: Google Maps, Photopills eta The Photographer Ephemeris.

Pazientzia

Pazientzia garrantzi handiko bertutea da, eta argazkigintzan ere bai. Nekez iritsiko zara lokalizaziora eta postaleko irudi bat lortu.

Konposizioa aztertu behar da, agertokia aztertu... eta ez hori bakarrik, batzuetan, ustekabeko elementuei aurre egitea ere egokituko zaizu; adibidez, elementu interesgarria estaltzen duten hodei batzuei. Horrelako zerbaiten aurrean, pazientzia hartu eta noiz pasako zain egotea besterik ez zaizu geratzen. Bitartean, beste argazki mota batzuk bila ditzakezu, edo kamera une batez utzi eta ingurua miretsi. Garrantzitsuena da ez larritzea eta zauden lekuaz gozatzea.

Ikuspuntu eta kokaleku berriak

Paisaiaren argazki bategaz inor harritu gura badugu, ezin dugu mundu guztiak egiten duen begiratoki batetik egitera mugatu. Leku estrategikoak bilatzen saiatu behar dugu, nahiz eta leku horietara iristea denbora eta ahalegin handiagoa inbertitu behar, aurrean dugun ingurunearen ikuspegi desberdina eta originala lortzeko.

Eta haiengana iristen zarenean, makurtu, angelu berriak bilatu eta ingurua arakatu argazkia egin aurretik... Horrela bakarrik lortuko dugu gure begirada eta konposizioak bereiztea.

Angeluhandiak

Paisaia on batean, normalean, gustatzen zaiguna eta inpaktua eragiten diguna da haren zabaltasuna, eta irudi batean hori islatzeko modurik onena da ikusmen angelu handi bat hartzea ahalbidetuko digun objektibo bat erabiltzea. Bai, lente angeluhandiez ari naiz.

Gainera, angeluhandi bategaz lan egiteak eta diafragma txiki bat irekitzeak emaitza hobea bermatuko digu argazkigintzan, garbitasunari eta eremu sakontasunari dagokienez, eta hori garrantzitsua izaten da.

Baina gauza guztiakaz gertatzen den bezala, hori ez duzu hitzez hitz hartu behar arau hautsezina balitz bezala. Ez pentsa paisaiaren argazkiak egiteko angeluhandi bat behar denik; inondik inora. Horren angeluarrak ez diren lenteakaz ere emaitza onak lortu ahal izango dituzu, eta, are gehiago, ikuspegi-angelu handiagoa bete gura baduzu, beti aukeratu ahal izango duzu panoramikak egitea, paisaia-argazkian oso formatu errepikakorra eta jarraian aipatuko duguna. Are gehiago, sinesten ez baduzu ere, teleobjektibo bat ere erabilgarria izan daiteke halako hartualdietan, batez ere arreta puntu jakin batean jarri gura dugun eszenetan, eta, horretarako, ikuseremua mugatu behar dugu.

Tripodea

Paisaiaren argazki on batek garbia izan behar du eta, horretarako, ezinbestekoa den osagarri bat dago: tripodea. Kameragaz tripodearen gainean lan egiten badugu, argazkiaren unean kamera mugimendua edukitzeko aukera oro kenduko dugu eta, horrek, zalantzarik gabe, mesede egingo dio gure emaitzari.
Eta are perfekzionistagoak izateko, urruneko disparadore bat ere erabil dezakezu (edo zure kameraren tenporizadorea), eta tiro-botoia sakatzean sor dezakezun dardara saihestu. Osagarrien konbinazio hori, zalantzarik gabe, ezinbestekoa da paisaiaren argazkigintzan eta, batez ere, denbora luzeko esposizioak egiten ditugunean, hemen azpikoa bezala.

Filtroak

Filtroen erabilerak gure emaitzak nabarmen aldatuko ditu, hobera. Hauek dira erabilienak:

Filtro polarizatzaileak. Filtro horien bidez, zeru urdinagoak lortuko ditugu, distirak ezabatuko ditugu, erreflexuak murriztuko ditugu eta gure argazkien koloreen saturazioa areagotuko dugu.

Dentsitate neutroko filtroak. Dentsitate neutroko filtroakaz kamerari sartzen zaion argi kopurua murriztuko dugu, eta, horri esker, obturazio-abiadura motelagoakaz lan egin ahal izango dugu esposizio luzeko argazkiak egiteko; horietan, uraren edota hodeien efektu sortzailea lortuko dugu.

Dentsitate neutroko filtro degradatuak. Filtro horiek aurrekoen antzekoak dira, baina graduatuta daude; hau da, goiko aldeak argi kopurua murrizten du eta behekoak ez. Horri esker, argi-kontraste handiak dituen paisaia baten esposizioa orekatu dezakegu, zerua oso distiratsua eta zorua iluna dituena.



Zaindu konposizioa

Argazki on baten eta argazki normal baten arteko aldea markatzen duen alderdiren bat badago, konposizio ona da. Nahiz eta gero argazki bat editatuko dugun, klikatzearen unetik ezer ekartzen ez badigu... nekez egingo du gero.

Beraz, zoro bat bezala klik egiten hasi aurretik, jaitsi kamera eta begiratu aurrean duzun inguruari. Modu horretan bakarrik erreparatuko diezu paisaia hori berezi bihurtzen duten xehetasun txikiei, eta eszenari gehien mesede egiten dion konposizioa aukeratu ahal izango duzu.

Proportzioak

Batzuetan, leku baten handitasuna erakusteko modurik onena da ezagutzen ditugun dimentsioak dituzten elementuak testuinguruan jartzea. Adibidez, pertsona bat paisaia baten aurrean jartzen badugu, hura paisaiaren tamainari dagokionez zein handia den jakin dezakegu.

Bestalde, gure paisaia-argazkietan giza elementu bat jartzeak ere interesa emango dio gure argazkiei, eta irudiari historia bat ematen eta, horrela, hura hobetzen lagun diezaguke.

Zure aztarnak ezabatu

Paisai baten argazkia egitera zoaz eta bidexkan zaborra, paperak eta topatzen ditugunean amorru ematen digun bezala, saiatu gure inguruak eta natura zaintzen. Beraz, inoiz ez utzi aztarnarik, argazkiak izan daitezela zure lekuko bakarra!

Iluntasunean argiaren bila

Izarrak, kotxeen argiak edo ura, gauez argazkia egiterakoan, beste xarma bat dute. Gure begiek ezin dituzte izoztu gure kameragaz sortu ahal ditugun irudiak, eta, horregatik, gaueko argazkiak hain berezi egiten zaizkigu.

Argi gehiago behar dugu

Gaueko argazkiak egiteko mila aukera daude, baina, orokorrean, guztietarako pazientzia eta planifikazioa beharrezkoa izango da. Argi oso gutxi dagoenez, esposizio luzeak egingo ditugu, eta horrek denbora behar du. Hemen ematen ditugun aholkuak gutxi batzuk dira; gustuko baduzue, bilatu ezazue informazio asko baitago argazki mota bakoitzerako, izarrak harrapatzeko mila modu daude, argien mugimenduak, ura...

Objektibo onak gauerako? Zenbat eta argitsuago izan, hobe. Fokal angeluar handia beharko duzu. Zure kamera *Full Frame* (Fx) ez bada, ziurtatu angeluar handia izaten jarraitzen duela konbertsio-faktorearen ondoren. Pentsatu, gaueko argazkiak eta paisai argazkiak egiteko asko erabiliko duzun objektibo bat izango dela, beraz, hori gustuko baduzu, inbertsioa ona izango da optika on bat lortzea.

Hiria gauez?

Kotxeen argiei esker mugimendua erakutsi nahi badugu, esposizio luze bat egin behar dugu. Bestela, ISOa igo beharko dugu, obturazio-abiadura jaitsi eta diafragmaren irekiera areagotu, argiek gure argazkia erre ez dezaten.

Eguzki-argirik ez dagoenez eta argiak, semaforoak eta bonbillak argiak direnez, gure argazkiek beste interesgune batzuk aurkituko dituzte. Adibidez, mugimendua argiari esker.

Izarrak

Izarrak zeruko puntu gisa lortzeko, denbora jakin batetik pasatzen ez den esposizio bat egin beharko dugu. Denbora hori erabiltzen ari garen foku-luzerak zehaztuko du, eta 500/ distantzia fokala izango da.

Adibidez, Tokina objektiboa, 11 milimetrora, izarrak puntu gisa uzteko, 500/11 arte erakutsi ahal izango dugu; hau da, 45 segundora arte. Aldiz, 50 mm finkoa erabiltzen badugu, 500/50 arte baino ezin izango dugu erakutsi, hau da, 10 segundo besterik ez, izarrak lerro gisa ager ez daitezen.
Argazki-mota honetarako, gomendatzen ditugun balioak, lehenik eta behin, ahalik eta irekien irekitzea dira; beraz, gure f/ ahalik eta gehien jaitsiko dugu. ISO igo behar dugu gure sentsoreak izar gehiago erregistra ditzan, 800 eta 3.200 artean balio onak izan daitezke, baita 4.000 ere, gure kamerak ISO altuak nola sostengatzen dituenaren arabera. Diafragma eta ISO ezarri ondoren, erantsitako taulagaz kalkulatuko dugu denbora.
Urrundu zaitez argi-kutsaduratik. Farolaz inguratuta bagaude edo hiriko argi-enkoadraketan agertzen badira, argazkiaren gune hori erre dezakete. Nahiz eta hiritik urrun egon eta argi-kutsadura egon, zeruak laranja koloreagaz agertuko dira, beraz, bila itzazue leku aproposak. Kontuz ilargiagaz argi asko islatzen baitu. Espero duzuna baino askoz gehiago, eta, jakina, izarrek igortzen dutena baino askoz gehiago; beraz, hobe da ilargia ez dagoela kontuan edukitzea.

Lightpainting

Argiztapen artifiziala erabiltzen dugu argiakaz margotzeko, hala nola linternak edo koloreetako argiak. Teknika honek ez du ekipo handirik behar, baina bai praktika nahi duzun efektua lortzeko. Horrelako efektuak lortzeko, honako hauek baino ez dituzu behar: LED linterna bat, kolorez alda daitekeena, edo argiak, linternak, flashak, tripode bat. Bulb tankerako kamera bat, hau da, eszena 30 segundo baino gehiagoz erakutsi ahal izango duena, esposizio luze bat jarri beharko baituzu. Eta diafragma f/8an gutxi gorabeherako irekiera gisa.
Kokapenaren eta enkoadraketaren arabera, irudia pixkanaka aldatu beharko duzu. Teknika honek, batez ere, hasi aurretik azken emaitzan pentsatzea eta plangintza on bat egitea eskatzen du.

Ezinbestekoak

Gauez argazkiak egitera goazenean, normalean baino ekipo gehiago eramango dugu, denbora nahiko pasako baitugu argazkiak egiten eta, askotan, hotza pasatzen:

Tripodea. Tripodea funtsezkoa da gaueko argazkigintzarako. Esposizio-denbora luzeak erabili beharko ditugu, eta tripoderik gabe egiten badugu, irudi dardarti eta enfokatu gabekoak geratuko zaizkigu.

Interbalometroa. Urrutiko disparadore bat da, eta gaueko argazkian beharrezkoa da, batez ere esposizio luzeetarako edo autoerretratuetarako. Gainera, funtsezkoa da trepidazioa saihesteko; hau da argazkia egiteko sakatzen dugunean sortzen den dardara.

Interbalometroari esker, programa dezakegu gure kamera automatikoki denbora-tarteetan klikatzeko. Horrela, gure kamerak argazki kopuru jakin bat egitea lortuko dugu, denbora jakin batez eta argazki bakoitzaren artean denbora-tarte zehatz bategaz.

Frontala. Lan-eremua argitzen lagunduko digu. Linterna bat baino askoz erosoagoa da, tripodea jartzeko eta antolatzeko eskuak faltako zaizkizu linterna normal bategaz. Horregatik, erosoena frontal linterna bat eramatea da. Eta askotan ere, argi indartsua dutenakaz *lightpainting* egiteko lagunduko digu ere.

Bateriak. Bateria gehigarriak, batez ere egun hotzetan. Beti da ona bateria osagarriak eramatea, baina gauez hotz handiagoa egiten du eta hotzagaz bateriak azkarrago kontsumitzen dira. Horregatik, ezinbestekoa da ordezko bateriak eramatea. Eraman beti egunean zehar eramango zenituzkeenak baino gehiago, eta hotz asko egiten badu, sartu bateriak zure txamarran zure gorputzeko beroagaz karga hobeto mantentzeko.

Motxila. Argazki-motxila on bat edo poltsa txiki bat kamera eta osagarriak gordetzeko. Etxetik ateratzen garen bakoitzean, funtsezkoa da gure ekipoa babestuta eramatea, dela kamera bakarrik, dela ekipo handi bat. Segurtasuna, kolpeen eta makurren aurkako babesa funtsezkoa da abentura askotan errepikatu ahal izateko. Janaria edo arropa gehigarria eramatea ere komenigarria da luzatzeko asmoa dugunean.

App lagungarriak

Antolatzeko orduan, aplikazio asko ditugu lagungarri, hemen adibide batzuk jarriko ditugu, baina zuek bilatu zuen gustukoenak. Batzuk ordainpekoak izan ahal dira, eta igual doakoak ere topa ditzakezue.

Photopills. Astroak, izarrak eta bestelako informazio erabilgarria non dauden edo egongo diren jakiteko. PhotoPills da horietako bat. Izan ere, app ospetsuena eta osoena da. Erabiltzeko asmoa baduzu, ordainpekoa da, baina merezi duen horietakoa da. Eguzkiari, ilargiari eta esne-bideari buruzko informazioa ematen dizu, eta Timelapse direlakoakaz, esposizio denbogaz eta argazkilarientzako beste datu interesgarri batzuekaz ere laguntzen dizu, haien webgunean ikus daitekeenez.

Eguraldiko aplikazioak. Oso garrantzitsua da jakitea euria egingo duen ala ez, eta zerua garbi edukiko dugun ala hodeitsua. Izarrak atera nahi baditugu, adibidez, jakin beharko dugu zeru garbia edukiko dugun, eta hotz asko ez pasatzeko ere bai, lagungarria izango da jakitea zenbatera jaitsiko den tenperatura gauean.

Mapa estelar. Edo antzeko izarren mapak, lagungarri izango zaizue esne-bidea non dagoen jakiteko, eta izarren argazkiak egiterakoan zeruan ondo kokatzeko.

DOF calculator. Eremu sakontasuna kalkulatzeko aplikazioa da, kasu honetan, mila aukera izango dituzue, beraz bilatu zuen gustukoena eta sinpleena dena. Halako aplikazio bat zuen diafragma eta fokuan agertuko diren distantziak kalkulatzen lagunduko dizue.

Norway lights. Gainera, Artikora bidaiatzeko asmoa baduzue aurora borealaren argazkiak ateratzeko, NorwayLights bezalako beste batzuek esango dizute gau horretan ikusiko diren ala ez. Zeruari buruzko informazio guztia, astronomiaren zein klimaren ikuspuntutik, funtsezkoa da etxetik irten aurretik.

Azkar ibili, edo argazkiak galdu

Kirolen argazkiak egiteko, abiadura da gure lehentasuna, baina fokuratzea, sentsibilitatea edota distantziak ere oso garrantzitsuak izango dira. Beraz, zure kamera ondo ezagutu beharko duzu ondorengoa lagungarri egiteko.

Foku-distantzia luzeak

Zaila da kirolari buruzko argazki on bat lortzea objektibo espezializatu onik gabe. Objektibo horiek prezio altuak izaten dituzte, dena esan behar da, baina horretan maiz aritzea pentsatzen baduzu, dirua inbertitzea gomendatzen dizut, merezi izango eta aldea asko nabarituko duzu.

Teleobjektiboa deritzona da behar duguna; foku-distantzia luzeko lenteak, gutxienez, 70-200 mm inguruko zerbait beharko duzu. 300 mm-ra irits bazaitezke, hobe. Eta gehiago ere izan daiteke, egin nahi dituzun kirolen edo argazkien arabera. Foku-distantzia luze horiek aukera ematen dizute harmailen edo aulkiaren erosotasunetik edo subjektuaren «atzetik» eserita zauden lekutik, inolako ahaleginik egin gabe argazkia egiteko. Behar duzun zoom guztia egin ahal izango duzu, eta ez duzu ohiko objektiboaren (24-70 mm) muga sentituko.

Ez da behar-beharrezkoa, kiroletako argazkiak bestelako objektiboakaz ere egin daitezke, eta egiten dira, angularragaz berbarako; baina, horretarako, kirolaren arabera, oso gertu egoteko aukera eduki beharko duzu. Horregatik, objektibo bat erosi baino lehen, proba ezazu ia erabilera emango diozun edo ez jakiteko.

Argia, beti argia

Objektibo ideal horren bilaketan ere saiatu diafragma-irekiera ahalik eta zabalena izan dezan. Irekiera handi batek argi gehiago sartzeko aukera eman eta argitasun gehiago lortzen lagunduko dizu. Gogoratu: zenbat eta handiagoa izan objektiboaren irekiera, orduan eta txikiagoa izango da haren f/ balioa. Adibidez, f/2.8ko batek f/3.5eko batek baino askoz ere irekiera handiagoa du.

Kontutan izan irekieraren tamainak asko garestitzen dituela objektiboak; beraz, kontuz ibili puntu horregaz, baloratu inbertsioa, baloratu zenbat aldiz egingo dituzun horrelako argazkiak, eta hartu erabakia.

Egonkortzailea gure laguna da

Normalean, foku-distantzia luzeetan (100, 200mm) argazkia lauso eta mugitua ateratzeko joera dago. Horren atzean dagoen azalpena oso zaila da kasurako, baina komeni da jakitea distantzia fokal horietan, hau da, kiroleko argazkigintzarako erabiltzen diren distantzietan, komeni dela objektiboak irudi-egonkortzailea izatea.

Irudi-egonkortzailea da argazkia gutxiago mugitzen laguntzen duen funtzio bat. Ez du beti bibrazioa ezabatzen, baina, gutxienez, saihesten laguntzen du.

Funtzio horrek izen ezberdinak ditu markaren arabera, batzuetan *OIS* deitzen da, beste batzuetan *IS*, *VR*... eta objektiboan aurkituko duzu botoia normalean.

Gaur egungo kamera askotan ere irudi-egonkortzailea izango dute kameraren gorputzean. Haien aukera eta modu ezberdinak ezagutzea komeni da, argazkiak mugituta atera ez daitezen.

Modu manuala edo erdi-manualak

Zure reflex kamerak, askotan, kiroletarako modu aurre-konfiguratu bat eskainiko dizu lehenetsita. Erabil ezazu, aukera ona da, batez ere, denbora asko ez daukazun uneetan, argazki gutxi azkar egin behar dituzunean edo argazkiaren edertasuna interesatzen ez zaizun uneetan, baizik eta ekitaldia argazki zuzen eta garbiakaz dokumentatzeko.

Hala ere, urrats bat harago joan nahi baduzu, argazkien gaineko kontrol handiagoa izan nahi baduzu, zure teknika hobetu nahi baduzu eta zure argazkiei sormen pixka bat gehiago bota nahi badiezu, kameraren gida irakurri eta erabiltzea gomendagarria da.

Modu manualagaz obturazio-abiadura eta diafragmaren irekiera kontrolatu ahal izango dituzu. Hasieran modu zaila da, baina egokiena dela uste dut.

Modu manualean apur bat seguru ez bazaude, gutxienez zure kameraren erdi-automatiko moduren bat erabiltzea proposatzen dizut: obturazio-abiadurari lehentasuna (*S, Tv*).

Abiadurari lehentasuna ematen diogunean, kamerak erabakiko du zein den irekidura egokiena, eta guk bakarrik abiaduraz arduratu beharko gara. Orokorrean modu hau komeni zaigu, batez ere mugimendua izozteko nahi badugu.

Abiadura

Argazkigintzan, momentua izoztu eta argazki garbiak lortu nahi badituzu, abiadura azkarrak erabili behar dituzu. Kirolak duena da; denak azkar mugitzen dira, eta obturazio-abiadura azkarrik erabiltzen ez baduzu, argazki mugituak eta lausoak ateratzeko arriskua dago. Hori, batzuetan, artistikoki nahi izango dugu, baina normalean ez.
Kirolaren arabera abiadura ezberdinak erabili ahal ditugu, eta gauden distantziaren arabera, abiadura handiagoa edo baxuagoa beharko dugu. Oso urrun baldin badago akzioa, abiadura ez da hain azkarra izan behar, agian 1/200 nahikoa izango da. Baina ekintzatik oso gertu bagaude, posiblea da 1/1.000s behar izatea.
Nire aholkua da 1/300s abiaduragaz hastea, eta probatzen joatea; mugituta ateratzen badira lehengoak, igo abiadura.

ISO altuak?

Argiaren baldintzen eta objektibo motaren arabera, baliteke argazkiak ilun ateratzea nahi dugun abiaduragaz.
Kasu horretan, kameraren ISO sentsibilitatea apur bat igo dezakezu, baina kontu handiz egin ezazu, zenbat eta sentsibilitate handiagoa ISO zarata (digitala) handiagoa agertuko baita argazkian. Probatu ISO 200, probatu ISO 400, eta, horrela, balio batera iritsi arte, non argazkia behar bezain argitsua den, baina zarata gaizto horrek hondatu gabe. Horretarako, oso gomendagarria da kamera ezagutzea, eta ISOa kontrolatuta edukitzea, jakitea adibidez:
800 ISO erabilita zarata gutxi daukazula, baina 3.200 ISO jada ez dela erabilgarria. Orduan, hori jakinda, beti ibiliko zara 200 eta 2.000 ISO artean, ahal duzun guztietan baxuena erabiliz.

Mono-oina edo tripodea erabili?

Kirola erlazionatzen dugu mugimenduagaz eta akzioagaz, baina gu, batzuetan, kokaleku finko batean egongo gara argazkiak egiten. Leku batean geldi gaudenerako, oso lagungarria izan daiteke mono-oina edo tripodea erabiltzea. Lagunduko digu egonkortasuna lortzen eta bibrazioak ekiditen. Eta orduak pasa behar ditugunean kamera eskuan eta objektibo pisutsuakaz, gainera, eskertuko dugu.

Tiro-sorta moduak

Zure kameraren menuan pixka bat kuxkuxeatzen baduzu, «Tiro egiteko moduak» izeneko zerbait aurkituko duzu, «Tiro-sorta» moduan. Horrela, 5, 10 edo 20 argazki egin ahal izango dituzu jarraian, disparadorea sakatzen duzun bakoitzean. Modu hori oso ezberdina da kamera bakoitzean, horregatik da garrantzitsua jakitea zelan funtzionatzen duen gurean. Modu hori erabilita ziurtatuko duzu 5 edo 10 argazkietatik ziur aski txukunen bat lortuko duzula.

Erabilgarria da ere bai mugimenduen animazioak lortzeko, segundo batean 10 argazki aterata mugimenduen sekuentziak lortuko baititugu.

Fokuratzea

Partidu edo lehiaketa batean argazkiak fokuratze manuala erabiliz egin nahi badituzu, erotu egin zaitezke. Posiblea da egitea, baina ez da erosoena. Gomendatzen dizut zure kameraren fokuratze automatikoa erabiltzea, kamera azkarra eta autonomoa baita, eta ia beti asmatu egiten du.

Modu ezberdinak daude, eta beharrezkoa da ondo ezagutzea ematen dizkigun abantailei etekina ateratzeko.

AF-S. Puntu finko batean fokua egingo du.

AF-C. Fokua jarraituko du enkoadrean agertzen den elementua, kirolaria, animalia, motorra... Oso garrantzitsua da ondo konfiguratzea dituen aukerak, abiadura ezberdinak dituztelako batzuetan...
Hau izango da gure lehentasuna, kamerak egingo duelako lan zaila: elementua fokuan mantentzea.

MF. Fokuratze manuala: zuk egin beharko duzu eskuz fokua eta asmatu. Ez da oso gomendagarria.

Argazkiak eginda, orain edizioa

Argazkiak errebelatzea eta editatzea argazkilaritzaren parte oso garrantzitsua da. Hemen, tresna basiko batzuk aipatuko dizkizuegu, zuek gehiago ikasteko; proba itzazue tresna hauek eta informazio gehiago bilatu.

Errebelatua

Edizioa esaten dugunean, askotan, errebelatua esan nahi dugu. Argazkiak RAW formatuan egiten ditugunean, negatibo analogiko bat bezalakoa da daukagun artxiboa, eta negatibo hori errebelatu behar dugu programa batekaz. Gure adibideetan Photoshop erabiliko dugu, baina asko daude, baita software librea diren programak ere; bakoitzak gustukoena erabil dezala.

RAW edo JPG

Ikastaroaren hasieran RAW eta JPG formatuan argazkiak egin daitezkeela komentatu genuen, eta diferentzia da batzuk aurrez editatutako fitxategiak direla (JPG) eta besteak negatiboak direla (RAW). Horregatik, JPG fitxategiak zuzenean ireki daitezke edozein editoretan, eta ebaki eta haiekaz lan egin. Baina RAWak errebelatu beharreko fitxategiak dira, editatzen hasi aurretik doitu beharrekoak. RAW fitxategien abantailak dira askoz gehiago doitu ditzakezula argiztapena, koloreak eta kontrastea modu ez hain oldarkorrean, argazkian kalitatea galdu gabe.



Enkoadraketa hobetu

Garrantzitsua da argazkian enkoadraketa bat egiten dugunean atera nahi dugunagaz bat etortzea. Baina, batzuetan, argazki hori berriz enkoadratu beharko dugu, edo enkoadraketa findu. Eta hori egokitzea nahiko erraza da ebakitzeko tresnagaz.

Ebakitzeko tresnaz gain, irudia zuzentzeko aukera dago. Sinboloa nibel bat bezalakoa da. Tresna honegaz, bi erreferentzia-puntu horizontal edo bertikal markatu ahal izango ditugu, eta, horrela, argazkia orekatuko dugu, zutiarazten.



Geruzak

Photoshop-en, geruzak erabiltzen ikastea garrantzitsua da, zonaka editatzeko eta edizio zehatzagoak egiteko aukera emango baitigu. Oso eremu zehatzetan, koloreak, kontrastea, argiztapena, desaturatzea edo beharrezkoa ikusten duguna doitu ahal izango dugu. Gainera, geruzen opakutasuna alda daiteke gero, edizio osoa hobeto orekatzeko.

Garrantzitsua da geruzakaz lan egiten dugunean, modu leunean egitea, ertzak lausotuz, argazkian gauza arrarorik ikus ez dadin. Horretarako, modu ezberdinak daude, baina errezena lausotze Gaussianoagaz egitea da.



Edizioa bai, baina orekatua

Argazkiak editatzea beharrezkoa da askotan, eta tonuak, argi-zonak edo koloreak doitzea normala da. Baina beti kontuz ibili behar dugu edizioagaz ez pasatzeko, askotan, argazkia zegoena baino okerrago eta artifizialago uzten baitugu. Argazkia errebelatu eta editatu behar da, baina beti beharrezkoa dena eta modu orekatu batean egiten saiatu. Edizioa oso zabala da, beraz, gehiago ikasi nahi baduzue, proba ezazue eta tutorialak bilatu, ikasteko modu onena baita.

Ezaugarri nagusiak

Hona hemen RAW argazki bat errebelatzerakoan agertuko zaizkigun tresnak. Programaren arabera banaketa ezberdina edukiko dute, baina, orokorrean, hauek dira erabilienak:

Histograma. Histograman irudi baten argiaren balioak irudikatzen dira. Eskala tonal osoa aprobetxatzen duen irudi batek, histograma zabaleran betetzen duena, irudi orekatu bat adierazten dute. Ezkerrean moko bat duten histogramek itzalen murrizketa adierazten dute; eskuinean moko bat duten histogramek, aldiz, argiztapenen murrizketa adierazten dute. Histogramak hiru kolore-geruzaz osatuta daude, eta kanal gorria, berdea eta urdina irudikatzen dituzte.

Profila. Kamera-profilak kamerak sortutako artxiboaren informazio gordinaren interpretazioak dira, *preset* bat bezala. Gomendatzen dut neutroena den baten bat erabiltzea, errebelatua guk egiteko gure erara.

WB edo zurien balantzea. Zurien balantzea objektu zuriak argazki batean kolore zuriz ikustea eragiten duen funtzioa da, argiaren koloreak duen eragina konpentsatzen baitu.

Esposizioa. Irudi osoaren argian eragiten du.

Kontrastea. Argazki osoari kontrastea gehitzen dio.

Argitasunak. Argitasun zonaldeetako detaileak berreskuratzeko balio du; erretako puntuak ezin dira berreskuratu, baina zonalde argitsuenen detaileak bai.

Itzalak. Itzaletako detaileak berreskuratzeko balio du. Ezaugarri hau eta argitasuna kontrolatu beharko dugu, pasatuz gero oso artifiziala geratu ahal delako argazkiaren argiztapena.

Puntu zuriak. Puntu zuriena zehazteko balio du, ALT tekla sakatuta mantentzen badugu, ikusiko dugu zer parte erretzen ari garen.

Puntu beltzak. Puntu beltzena zehazteko balio du, ALT tekla sakatuta mantentzen badugu, ikusiko dugu zer parte guztiz beltz uzten ari garen.

Testura. Tonu medioen kontrastea aplikatuko du definizio gehiago duten irudiaren zatietan.

Argitasuna. Tonu medioen kontrastea aplikatuko du irudi osoan.

Lainoa kendu. Puntu finko batean fokua egingo du.

Intentsitatea. Saturazio gutxiago duten koloreen intentsitatea indartzen du, kolorea konpentsatuz. Intentsitatea erabiltzen badugu, irudien kolorea suabeago kontrolatuko dugu, pasatu barik.

Saturazioa. Kolore guztien intentsitatea indartzen du, hortaz, nagusi diren kolore biziak, askoz gehiago indartuko dira.

Argazkien nondik norakoak

Argazkiak zelan eta zer parametrogaz egin diren jakitea interesgarria da askotan, adibideakaz ere ikasten delako. Horregatik, hemen bi argazkien analisia eta nondik norakoak azalduko dizkizuegu.

KAMERA: Sony A7III 35mm f1.8

MODUA: Manuala

ENFOKEA: Auto

FOKALA: 35mm

DIAFRAGMA: f 4

ABIADURA: 1/250

ISO: 800

WB: Lainotuta

Erretratu honetan, pertsonaiaren anonimatoa mantendu eta, aldi berean, bere lana islatu guran, foku planoakaz eta estalduragaz jolastu dugu. Muralak egiten dituen pertsonaia dugu, eta hori argi geratu dadin, espraiaz baliatu gara bere aurpegia tapatzeko, garai honetako muxukoak ere lagundu digu horretan. Begian fokua jartzea indarra ematen dio.

35mm objektibo finko bat erabili dugu, f1,8 duena, erretratuetarako nahikotxo erabiltzen duguna, desenfokea lortzeko fondoan. Ez dugu erabili 1.8 hori, baizik eta f4 bat oraingoan. Zergatik? Bada, plano erdiko erretratu bat da, eta fondoa nahiko ondo ikustea gura genuelako. Oso gertutik aterata eta 1.8 erabiliko bagenu, fondoa guztiz desagertuko zen, eta, kasu honetan, pertsonaiaren parte bat denez, mantendu behar genuen.

Arrastian, kale itxian eta egun gris batean ateratakoa da, argi eskasagaz. Horregatik, abiadura normal bategaz, 1/250, ISOa igo behar izan dugu apur bat, ISO 800-era. Kamera honegaz arazorik ez dugu ISOa igotzen, baina beste batzuetan adi egon beharko gara, eta agian abiadura moteldu eta ISOa jaitsi zarata digitala ez agertzeko.

Ikusten duzuenez, erdian kokatu dugu gure protagonista, triangelu moduko bat osatzen duela argazkiaren erdigunean. Konposizioa oso sinplea da, kasu honetan arreta, detaileetan utzi gura dugulako.

WB lainotuta erabili dugu, esan dugunez egun grisa baitzen, eta kolore neutroak topatzeko egokiago zelako.

FOKALA: 16mm

DIAFRAGMA: f 7,1

ABIADURA: 1/320

ISO: 160

WB: Auto

KAMERA: Fujifilm X-T3 | 10-24mm f4 | **16-35mm*.*

MODUA: Manuala. **ENFOKEA:** Auto

Hona hemen Islandiako kostaldeko portu txiki baten irudia. Ikusten duzuenez, objektibo angeluhandia erabili dugu, 16mm, paisaiaren zabalera eta informazio gehiago lortzeko. Modua manuala izan da, baina modu semiautomatiko bat erabiltzekotan, diafragmari lehentasuna ematen izango zen, f7,1 hori mantentzeko.

Lehen planoan eta fondoan dauden zehaztasunak ondo ikusteko, diafragma itxia erabili dugu, f 7,1, eremu sakontasuna handia izateko. ISO minimoa erabili dugu, kasu honetan 160, kalitate onena edukitzeko, eta, argia soberan dagoenez, abiadura 1/320 erabili dugu, azken finean, abiadura, beste parametroei egokitzen ezarri dugu.

Herenen araua begiratuta, ikusten dugu nola irudiaren 2/3 lurra diren, eta 1/3 zerua. Eta begiradaren norabidea (lerro urdinez markatuta) ezkerretik goitik eta eskumara behera doala, normalean irakurtzen dugun bezala. Mendiak lehenengo puntua da, eta hortik portuko ontzietara doa begirada, kostaldeko lerroa jarraituz kanpora berriro.

Argazkian ere, ezberdindu ahal dugu lehen planoa, portua eta biltegia ditugula, bigarren planoa, mendi azpiko etxeen proportzioak ikusten laguntzen dutenak, eta fondoan, paisaiaren handitasuna, mendiak eta kostaldeko amildegiak.

Kolorearen kudeaketa, WB edo zurien balantzea, autoan zegoen, baina RAW artxiboak direnez, errebelatuan moldatu da, eguzki edo eguneko WB jarrita.

Hobetzeke edo, esan dezakegu eskuman beheko izkinan dagoen biltegia moztuta dagoela, eta apur bat arraro edo desorekatua geratzen dela, baina, kasu honetan, nahiago genuen mendia eta etxeetatik datorren errepideari duen garrantzia ematea. Biltegia eta bere inguruan zegoena oso itxurosoa ez zen, eta konposaketa kaotikoago bat sortuko zuen gainera.

KAMERA:
Nikon D750
380-200mm f2.8

MODUA: Manuala

ENFOKEA: Auto

FOKALA: 135mm

DIAFRAGMA: f 9

ABIADURA: 1/1000

ISO: 400

WB: Auto

Sopelan agertutako balearen irudi ezberdinak egin genituen, batzuk gertutik aterata eta are ikusgarriagoak seguruenik. Baina, kasu honetan, garrantzia eman gura genion tamainaren proportzioei. Irudian islatu gura genuen baleak zuen tamaina, eta, horretarako, jendearen tamaina ikustea beharrezkoa zen. Irudia egiteko, teleobjektibo bat erabili dugu, urrunetik, eta teleobjektiboarekin, planoak konprimitzen dituglako, eta hobeto ikusten delako tamainaren konparaketa.

135mm fokala erabili dugunez eremuaren sakontasun dezentea edukitzeko, diafragma itxia behar izan dugu, f9 kasu honetan. Jendea, olatuak eta balearen mugimendua olatuakaz ekiditeko, abiadura azkar bat egokia da, 1/1.000 kasu honetan. Eta ISOa beste bi parametro horietara egokitu dugu, 400ean utzita.

Tamaina denez gure lehentasuna argazki honetan, konposizio oso sinplea egin dugu, beheko herenean jendea jarriz, balea haien gainean tamaina ondo ikusteko, eta zerua goiko herenean baino nahiko bortxatuta. Garrantzitsua da ere horizontea orekatuta egotea.

Zer aldatuko genuke irudi honetan? Bada, batez ere, altuera batetik egin ahal izanda, perspektiba, kasu honetan oso lerrokatuta dago jendea eta balea, eta apur bat haien artean distantzia handitzean, konposizio garbiago bat edukiko genuke. Ikusten duzuenez, buru batzuk baleari itsatsita daude, eta horrek garbitasuna edo apurtzen du. Baina betiko legez, daukagun egoera eta lekuari egokitu behar gara, eta ahal dugun eta hoberena atera. Beti ez dugu izango aukera gura dugun argazkia lortzeko, eta egokitzen ikasi behar dugu ere bai. Horrez guztiaz gainera, begian fokua jartzea indarra ematen dio.

Hemen eskuman, ikusi ahal dituzue ateratako beste irudi batzuk, hobeto ulertzeko azaldutakoa.

FOKALA: 200mm

DIAFRAGMA: f 4

ABIADURA: 1/1000

ISO: 400

WB: Eguzkia

KAMERA: Fujifilm X-T3 | 50-140mm f2.8 | **70-200mm*.*

MODUA: Manuala + tiro sorta. **ENFOKEA:** Auto

Kaioak ugari dira gure inguruan, beste horrenbeste itsasoko hegaztiak bezala. Gaztelugatxe inguruan egindako irudi honetan bi ezaugarri azpimarratu gura ditugu: abiadura eta teleobjektiboak.

Argazki motaren arabera, behar dugun materiala ezberdina izango da;ikusi ditugu angeluhandiagaz egindako irudiak, 35mm bategaz eta, kasu honetan, hegaztien argazki bat dugu. Ezinbestekoa da erabili dugun 200mm-ko fokala, zaila izaten baita hegaztiei asko hurbiltzea; urrunetik argazkiak egiteko, teleobjektiboak behar ditugu.

Azkar mugitzen den animalia denez eta urrun dagoenez, fokalaz aparte, abiadura handia beharko dugu momentua izozteko. 1/1000ko abiadura erabili dugu eta baita tiro-sorta moduan (tiro segida azkar bat egiten duen modua) jarri beharko dugu kamera ere, argazki asko jarraian egiteko, eta gero guk horietatik hoberenak aukeratzeko.

Kiroletarako edo abiadura duen edozein egoeretarako ere izan daiteke baliagarria gomendio hau, azken finean, izoztu gura ditugunean mugimenduak, abiadura azkarrak beharko ditugu.

Tiro sorta aukera erabiltzerakoan, gogoratu gero aukeraketa egiterakoan lana handitzen dela, argazki bakarra egin beharrean, hiru edo 10 bat egin behar ditugulako.

Eskuman ikus ditzakezue ateratako beste bi argazki; goikoan, kaioa oso gertu dago izkinan, eta konposizioa oso bortxatuta dago, horregatik baztertu dugu. Eta behekoan, kaio bakarra dugu eta ez da momenturik politena ere ez.

ZURE ENPRESAREN IRUDIA ETA KOMUNIKAZIOA INDARTU NAHI DUZU?

DISEINUA ETA MAKETAZIOA • ARGAZKIGINTZA • IKUSENTZUNEZKOAK • PUBLIZITATEA



lukiakomunikazioa@gmail.com 688 81 23 68 @lukia_komunikazio_zerbitzuak

ZURE KOMUNIKAZIO AGENTZIA EUSKARAZ

Eta orain... Argazkilaritza tailerrak!

LUKIA
Komunikazio Zerbitzuak